

Osasun publikoaren aldarriak

Krisiaren aterpean, murrizketen politika larriki ari da kaltetzen Ongizate Gizartearen oinarri diren zerbitzu publiko eta unibertsalak. Pribatizazioaren eta baliabideak urritzearen beldur, herritarrentzako osasun zerbitzu indibidual eta kolektibo hobea aldarrikatu du Osalde Osasun Publikoaren Aldeko Elkarteak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkia: Dani Blanco

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO hauteskunde kanpainan, aurkeztu diren alderdi politikoei hamar puntuko eskutitza bidali zien Osaldek, eta bertan hainbat eskaera egin dizkiote hurrengo lehendakariari, Osakidetza kalitatezko zerbitzua izan dadin:

- Osasunera bideratutako aurrekontua ez da ekonomia eraginkorraren aurka egiten duen zulo beltza, baizik eta sozialki ezinbestekoa den inbertsioa. Inbertsio publikoa izan behar du, doakotasuna eta unibertsaltasuna bermatzeko, eta eraginkortasun handiagoa lortzeko.

- Jasangarritasuna beste zerbitu da. Ez da “ospitalezentrisismoaren” alde egitea, ez da medikalizazioa, ez da teknologia eta farmakoak neurrigabe bultzatzea, kontsumo nahiz prezio aldetik.

- Marketin gutxiago. Industria tekno-sanitarioaren botereak eta politikarien utzikeriak sustatuta, sarri osasunarekin zerikusirik ez duten interes ekonomikoengatik egiten dira –beharrezkoak ez diren eta areago, kaltegarri izan daitezkeen– hainbat ebakuntza.

- Gardentasuna. Beharrezkoak dira zintzotasuna, independentzia eta informazioa bezalako balioak bermatuko dituzten eta interesen arteko gatazkak arautuko dituzten mekanismo eraginkorrak.

- Osasun plan integralak. Piramide egituraren oinarrian, lehen mailako arreta; eta gailurrean, arreta kritikoa, espezializatua eta lehen mailakoa egiteko baliabideen eta osasun publikoaren arteko oreka egokia.



Gaixoak bezero bilakatu ordez, herritarrek osasunaren politika publikoen erabaketan hartu behar dute parte

- Osasunak politika programa guztietan egon behar du, bultzatzeko elikadura osasuntsua, ariketa fisikoa eta hirien birdiseinua, gizarte zerbitzuak, etxebizitza eta lan duinak, garraio publiko egokia, aire osasuntsua, hondakinen tratamendu jasangarria, gizarte sareak... Udalerriak dira politika hauen arduradun eta ezin dituzte begiak itxi.

- Osasun arloan dauden desberdintasunak eremu ekonomiko, sozial eta politikoan dauden desberdintasunen ondorio dira, nahiz eta ikuspegi teknikoa, teknologikoa eta biologikoa emanez mozturrotu duten errealitatea.

- Herritarren parte-hartzea. Gaixoak bezero bilakatu ordez, herritarrek osasunaren politika publikoen erabaketan hartu behar dute parte, eta eskubidea dute osasun zerbitzuaren kontrol sozialean eragiteko.

- Osasun publikoaren gestioa. Gestio demokratikoa eta kooperatiboa izatetik urrun, garai

bakoitzean gobernuan dauden agintarien eta epe motzeko erabakien esku dago eta eredu guztiz enpresarialerantz doa, merkatuaren mekanismoak eta pizgarriak errepikatuz.

- Lehen mailako arreta da lehentasuna zaintza eta artatze eredu. Baliabide ekonomiko handiagoak behar ditu lehen mailako arretak, burokrasia gutxiago, eta erabakitze eta baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko gaitasun handiagoa. ■

